

**AKORDIOA, IV. SAILKAPEN TALDEKO (Kategoria profesionala: Jarduera espezifikoen teknikari laguntzailea, Espezialitatea: Mantentze Lanak eta Produkzioarako Zerbitzuak) LAN KONTRATUDUN LANGILE FINKOAK HAUTATZEKO PROZESUAREN EPAIMAHAIARENA. DEIALDI HORI 2018ko AZAROAREN 2ko ERREKTOREAREN ERABAKIAREN BIDEZ EGIN ZEN.**

---

Epaimahai honek, 2019ko urriaren 3an bilduta, honako hau erabaki du:

**LEHENENGOA.**- Jakitera ematea hautagai bakoitzak azterketa egiteko unean, hasi aurretik, aukeratu ahal izango duela bai azterketa egiteko hizkuntza, bai egin beharreko ariketa praktikoa mota.

**BIGARRENA.**- Oinarri espezifikoen 3.1.2 puntuan adierazitako ariketa praktikoa egiteari begira, epaimahaiak gutxienez proposatuko dituen 5 kasu praktikoetako bat ebaztea hautatzen duten pertsonak honako material eta dokumentazio hau erabili ahal izango dute:


- Erregela.
- Kalkulagailua.

**HIRUGARRENA.**- Ezingo da erabili ez telefono mugikorrik, ez Internetera konektatu daitekeen inolako gailu elektronikorik.

**LAUGARRENA.**- Akordio hau Pertsonaleko Gerenteordetzara igortzea, egoki diren bitartekoen bidez argitaratu dadin.

Leioa, 2019ko urriaren 3a

Epaimahaiko idazkaria



Libe de Agirre de Arriaga